



GETXOKO ANDRÉS ISASI UDAL MUSIKA ESKOLA TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOAREN ESTATUTUAK.-

IZAERA ETA XEDEAK

1. ARTIKULUA.- Getxoko Udalak "Getxoko Kontserbatorioa" tokiko erakunde autonomoa sortu zuen 1986.09.24an, orain Getxoko "Andrés Isasi Udal Musika Eskola" toki-erakunde autonomoa deritzona. Egoitza musika eskolan bertan du, Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85. artikuluan ezarritakoaren itzalpean. Udalerri honen eremuan musikarako dedikazioa izan behar du, eta estatutu hauetan zehazten diren helburuak bete.

2. ARTIKULUA.- Horrela sortutako erakundeak berezko nortasun juridikoa izango du. Administraziozko, eskubideak eskuratzeko, kontratuak egiteko eta betebeharrak hartzeko gaitasuna izango du, bere helburu eta xedeak lortzeko.

3. ARTIKULUA.- Erakundeak honako funtzio hauek ditu:

- a) Getxo udalerrian musika kultura zuzpertzeta eta bultzatzea.
- b) Musikaren inguruko bestelako erakundeekin batera jardutea, musika hedatzeko eta musikarenganako zaletasuna zabaltzeko lanetan.
- c) Sor litezkeen musikari gazteak heztea. Unean uneko baliabideen arabera lagunduko die.
- d) Helburu orokor horren barruan lan interesgarria egiten duten edo asmo hori duten musika taldeei eta abesbatzei laguntzea.
- e) Musikaren mesedetan ahal beste jarduera antolatzea.

ESTATUTOS DEL ORGANISMO AUTÓNOMO LOCAL DE LA – “ESCUELA DE MÚSICA MUNICIPAL ANDRÉS ISASI” DE GETXO.-

NATURALEZA Y FINES

ARTICULO 1.- El Ayuntamiento de Getxo fecha 24-9-86, creó el Organismo Autónomo Local "Conservatorio de Getxo", ahora "Escuela de Música Municipal Andrés Isasi" de Getxo, con domicilio en la propia Escuela de Música, al amparo de lo establecido en el artículo 85 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, con dedicación musical dentro del ámbito de este Municipio y para el cumplimiento de las finalidades que se concretan en los presentes Estatutos.

ARTICULO 2.- El Organismo así creado tendrá personalidad jurídica propia y plena capacidad para administrar, adquirir derechos, contratar y asumir obligaciones referidas a la consecución de sus objetivos y finalidades.

ARTICULO 3.- El Organismo tiene las siguientes funciones:

- a) El fomento y promoción de la Cultura Musical en el Municipio de Getxo.
- b) La colaboración con otras Organizaciones Musicales en la tarea de la difusión de la música y el desarrollo de la afición musical.
- c) El cultivo de los valores musicales que puedan descubrirse, a los que apoyará de acuerdo con las posibilidades del momento.
- d) La ayuda a conjuntos musicales y corales que realicen o vayan a realizar una labor de interés dentro de la citada finalidad genérica.
- e) La organización de cuantas actividades puedan redundar en beneficio de la música.



ERAKUNDE AUTONOMOAREN ORGANOAK

4. ARTIKULUA.- “Andrés Isasi Udal Musika Eskola” erakunde autonomoaren gobernu eta administrazio organoak hauexek dira:

- a) Kontseilu artezkaria.
- b) Kontseiluko lehendakaria.
- c) Zuzendaria.

5. ARTIKULUA.- Kontseilu artezkaria erakundearen organo gorena da, eta hura gobernatzeko eta kudeatzeko betebeharra du.

6. ARTIKULUA.- Kontseilu artezkariak kide hauek izango ditu:

- a) Lehendakaria:

Alkatea berezko lehendakaria da. Dagozkion ahalmenak jarduneko lehendakariari eskuordetu ahal dizkio.

Lehendakariak kalitatezko botoa izango du bozketa batean hainbana boto badaude.

- b) Hizpide eta hautespidea duten kideak: gutxienez, udaletxeko talde politikoetako bost zinegotzi, indarrean dagoen hautets sistemaz hautatuak, udaleko hauteskundeetako emaitzen arabera.

Udalan ordezkariarik duen alderdi politikoren bat aurreko lerrokadako formula aplikatuz bazter gelditzen bada ere, Kontseilu artezkarian ordezkari bat izateko eskubidea izango du. Gainerako alderdi politikoek euren ordezkarietarako eskubidea izango dute, aurreko lerrokan ezarritako proportzionaltasunean.

- c) Idazkaria:

Erakundeko zuzendaria izango da idazkaria. Hizpidea izango du, baina hautespiderik ez.

ÓRGANOS DEL ORGANISMO AUTÓNOMO

ARTICULO 4.- Los órganos de Gobierno y Administración del Organismo Autónomo "Escuela de Música Municipal Andrés Isasi" de Getxo son los siguientes:

- a) El Consejo Rector.
- b) El Presidente del Consejo.
- c) El Director.

ARTICULO 5.- El Consejo Rector es el órgano supremo del Organismo y asume el gobierno y gestión del mismo.

ARTICULO 6.- El Consejo Rector está integrada por los siguientes miembros:

- a) El Presidente:

El Alcalde es el Presidente Nato, quien podrá delegar las facultades que le correspondan en el Presidente Efectivo.

El Presidente tendrá la condición de voto de calidad de empate.

- b) Vocales con voz y voto: Cinco concejales como mínimo de los grupos políticos de la Corporación elegidos de acuerdo con el sistema electoral vigente, según los resultados de las elecciones municipales.

En caso de que con la fórmula mencionada en el párrafo precedente, algún partido político con representación en el Ayuntamiento quedase excluido tendría también derecho a tener un representante en el Consejo Rector, conservando su representatividad el resto de los partidos políticos de acuerdo con la proporcionalidad establecida en el párrafo anterior.

- c) Secretario:

Actuará de Secretario el Director del Organismo, con voz pero sin voto.



7. ARTIKULUA.- Kontseilu Artezkariako karguek udalaren legegintzaldiak adina iraungo dute.

Uko egiteagatik, gaixo egoteagatik, hiltzeagatik, absentiengatik etab hutsik gelditzen diren lekuen berri emango zaio horiek izendatu behar dituen organoari, ordezkioak bila ditzan.

8. ARTIKULUA.- Kontseilu artezkariak betebeharrak hauek izango ditu:

a) Erakundearen xede diren musikako jarduerak guztien egitaraua egiteko irizpideak zehaztea. Egoki irizten zaienetan laguntzea.

b) Legeriaren arabera egin beharreko kontratuak eta egintzak guztiak egitea, eta horietan bere burua behartzea, bere eskumenaren eremuan.

c) Judizioan edo judizioz kanpo, erakundearen ondasunak, eskubideak eta ekintzak erreklamatzeko eta defendatzeko, auzitegi, epaitegi, agintaritzak edo korporazioen aurrean. Sortzen diren auzietan etsi dezake, edo tartekaritza-judiziotara eramanez. Egiten dituen ekintzak eta errekurtsoetan atzera egin dezake.

d) Getxoko Udalak erakunde autonomoaren izenean hartzen dituen ondasunak, eta dohaintzak, jaraunspenak eta legatuetatik datozenak, onartzea eta jasotzea.

e) Erakundearen inbentarioa eta urteroko zuzenketak eratzea eta onestea, eta udalari jakinaraztea.

f) Udalari onesteko aurkeztutako plantila-proiektua onestea. Kudeatzailea izendatzea, lehendakariak proposaturik, eta Tokiko Araubideko Oinarriak Arautzen dituen Legearen 85 bis 1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

g) Erakunde autonomoaren lanpostuen zerrendak onestea.

ARTICULO 7.- La duración de los cargos del Consejo Rector será por el mismo período que dure la legislatura municipal correspondiente.

Las vacantes que se produzcan por renuncia, enfermedad, defunciones, ausencias etc. serán puestas en conocimiento del Órgano al que corresponda su designación, para que cubra su sustitución.

ARTICULO 8.- Corresponderán al Consejo Rector las siguientes funciones:

a) Definir los criterios de programación de todas las actividades musicales que constituyen el fin del Organismo y colaborar en aquellas otras que se estime oportuno.

b) Obligarse y otorgar con arreglo a la legislación, toda clase de actos y contratos dentro del ámbito de su competencia.

c) Reclamar y defender en juicio o fuera de él, ante los Tribunales, Juzgados, Autoridades o Corporaciones, los bienes, derechos y acciones pertenecientes al Organismo, pudiendo transigir o someter las cuestiones que se susciten a juicio arbitral y desistir de las acciones y recursos que promueva.

d) Aceptar y recibir los bienes que el Ayuntamiento de Getxo adscriba al Organismo Autónomo, así como los procedentes de donativos, herencias y legados.

e) Formar y aprobar el inventario del Organismo, así como las rectificaciones anuales, comunicándolo al Ayuntamiento.

f) Aprobar el proyecto de Plantilla que se elevará al Ayuntamiento para su aprobación. Nombrar al Gerente, a propuesta del Presidente y de conformidad con lo dispuesto en el artº. 85 bis 1.b) de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.

g) Aprobar las Relaciones de Puestos de Trabajo del Organismo Autónomo.



h) Getxoko Udalari estatutu hauek osorik edo zati batez indargabetzeko eta aldarazteko proposatzea.

i) Barruko araudiak onestea, aldaraztea eta indarrean sartzea.

j) Erakundearen hurrengo ekitaldirako aurrekontua idaztea eta udalari onesteko aurkeztu.

k) Tokiko Araubideko legeriaren arabera udaleko osoko bilkurari dagozkion eskurantzza guztiak.

9. ARTIKULUA.- Lehendakariak funtzio hauek ditu:

a) Berritze prozesuetan buru izatea, helburuak proposatzea, eta helburu berdinak dituzten bestelako erakunde eta elkarteekiko harremanak bultzatzea.

b) Sarrerak eta ordainketak agintzea.

c) Kontseilu artezkariaren batzarretan buru izatea, batzarrak etetea edo batzarrak bukatzea, eztabaidak zuzentzea eta hainbanaketa dagoen bozketan kalitatezko botoa ematea.

d) Kontseilu artezkariak hartutako erabakiak betearaztea.

e) Getxoko "Andrés Isasi Udal Musika Eskola" ordezkatuko du auzitegi, epaitegi, magistratu, notario eta partikularren aurrean. Mandatuak eta ahalgoak emango ditu ordezkaritza hori egiteko.

f) Kontseilu Artezkariaren eskumen diren kontuetan ekintza judizial eta administratiboak burutzea, premiazko kasuetan, eta lehen batzarrean haien berri ematea.

g) Beharrezko diren kontratuak emango ditu Kontseilu artezkariaren ordezkariak.

h) Aktak eta ziurtagiriak baimentzea, ontzat

h) Proponer al Ayuntamiento de Getxo la derogación y modificación total o parcial de los presentes Estatutos.

i) Aprobar los reglamentos internos, su modificación y puesta en vigor.

j) Redactar el presupuesto del Organismo para el ejercicio próximo y someterlo a la aprobación del Ayuntamiento.

k) Todas aquellas atribuciones que en la legislación de Régimen Local correspondan al Pleno del Ayuntamiento.

ARTICULO 9.- Son funciones del Presidente:

a) Liderar procesos de innovación, proponer objetivos, potenciar las relaciones con otros Organismos y Entidades con los mismos fines.

b) Ordenar los ingresos y pagos.

c) Convocar, presidir, suspender o levantar las sesiones del Consejo Rector, dirigir las deliberaciones y decidir los empates con su voto de calidad.

d) Cuidar que se cumplan los acuerdos adoptados por el Consejo Rector.

e) Representar a la "Escuela de Música Municipal Andrés Isasi" de Getxo ante los Tribunales, Juzgados, Magistrados, Corporaciones, Autoridades, Notarios y particulares; conferir mandatos y poderes para ejercer dicha representación.

f) Ejercer las acciones judiciales y administrativas en cuestiones de competencia del Consejo Rector, en los casos de urgencia, dando cuenta al mismo en su primera reunión.

g) Otorgar los contratos que sean necesarios en representación del Consejo Rector.

h) Autorizar las Actas y certificaciones,



emanen.

i) Kontseilu Artekariak eskuordetzen dizkion gainerako funtzio eta eskurantzak, eta udaletan, Tokiko Araubidearen bidez, alkateari ematen zaizkionak.

Aurreko ahalmenak lehendakariak berak izendatzen duen pertsonari eskuordetu ahal zaizkio. Pertsona horixe izango da jarduneko lehendakaria.

10. ARTIKULUA.- Estatutu hauen 3. artikuluan deskribatutako funtzio eta helburuen jarduneko arduraduna da zuzendaria, lehendakariaren eta Kontseilu artekariaren eskumen handiagoak izan arren. Kontseilu artekariaren idazkari gisa jardungo du.

- Erakundeko zuzendari den aldetik, hauexek izango ditu oinarritzko funtzio:

a) Getxon musikaren kultura zabaltzen lagundu, Musika Eskolaren eremuan.

b) Erakundeko dependentziak antolatu, zuzendu eta ikuskatzea, berehalako zuzendaritza eginez, eta bere menpeko langileak antolatu, zuzendu eta ikuskatzea, Lehendakaritzaren menpean.

c) Kontseilu artekariak edo Lehendakaritzak ematen eta adierazten dizkion ahalmenak gauzatzea, bere eskumenen barruan.

d) Lehendakariari laguntzea, ematen dizkion lan eta kudeaketak eginez.

e) Erakundearen ordezkari izango da administrazioaren eremuan, lehendakariak ordezkari gisa jokatu ezin duenetan.

f) Urtero egindako jarduera eta zerbitzuen txostena idatzi behar du, eta Kontseilu artekariak eskatzen dituen txosten guztiak.

g) Erabiltzaileen iradokizun eta erreklamazio guztiei arreta egitea.

poniendo en ellos el visto bueno.

i) Cualesquiera otras funciones y atribuciones que le delegue el Consejo Rector, así como aquellas que en la legislación de Régimen Local se asignan en los Ayuntamientos al Alcalde.

Las anteriores facultades podrán ser delegadas en la persona que el propio Presidente designe y que tendrá el carácter de Presidente ejecutivo.

ARTICULO 10.- El Director es el Responsable Ejecutivo de las funciones y objetivos descritas en el artículo 3 de estos Estatutos, sin perjuicio de las superiores competencias del Presidente y del Consejo Rector, y actuará como Secretario del Consejo Rector.

- Como Director del Organismo tendrá las siguientes funciones esenciales:

a) Impulsar la difusión de la cultura musical en Getxo, en el ámbito de la Escuela de Música.

b) Organizar, dirigir e inspeccionar las dependencias del Organismo, ejerciendo su dirección inmediata y del personal a su servicio, bajo la dependencia de la Presidencia.

c) Ejercer las facultades que le otorgue y señale el Consejo Rector o la Presidencia, dentro de sus atribuciones.

d) Asistir al Presidente realizando las gestiones y funciones que le encomiende.

e) Representar administrativamente al Organismo en los casos en los que la representación no sea asumida por el Presidente.

f) Redactar anualmente la memoria de actividades y servicios prestados y cuantos informes precise el Consejo Rector.

g) Atender las sugerencias y reclamaciones de los usuarios.



- Kontseilu Artezkariko idazkari den aldetik, erakundeko idazkariaren funtzioak bete behar ditu, eta bereziki honako hauek:

a) Kontseilu artezkariak dituen batzar guztietara joan behar du. Hizpidea izango du, baina hautespiderik ez.

b) Lehendakariak deialdi bakoitzeko aztergaien zerrenda eratzeko behar dituen gaiak prestatu behar ditu.

c) Batzarren akten zirriborroak eta lehendakariak bidali beharreko gutunak idaztea.

d) Agiriak, espedienteak eta artxiboa jagotea.

e) Erakundeko Kontseilu artezkariak eta bertako kideek eskatzen dizkioten txostenak bidali behar ditu, bere eskumeneko gaietaz badira.

f) Erakundeari eta bere zerbitzutan lanean dauden langileei interesatzen zaizkien gaien tramitazioa bultzatu behar du.

BATZARREN ARAUBIDEA

11. ARTIKULUA.- Kontseilu artezkariak urtean sei batzar arrunt egingo ditu. Aparteko batzarrak egingo ditu lehendakariak beharrezko deritzonenean, edo batzako kideen heren batek edo gehiago bozkatzuz hala eskatzen badute.

Kontseilu Artezkariko edozein kidek aurkez ditzake proposamenak Kontseilu artezkariaren batzarretara, batzarra baino zortzi egun lehenago gutxienez, aztergaien zerrendan sartu ahal izateko eta egiten den lehenengo Kontseiluan sartzeko, baldin eta proposatutako gaiak erakunde autonomoa sortu zeneko helburuekin bat badatoz.

Kontseiluren bilkura arruntak eta apartekoak egiteko deialdia idatziz egingo da, lehendakariak agindurik, 48 ordu lehenago gutxienez.

- Como Secretario del Consejo Rector le corresponderá el desempeño de las funciones de Secretaría del Organismo y especialmente las siguientes:

a) Asistir a todas las reuniones que celebre el Consejo Rector, con voz pero sin voto.

b) Preparar los asuntos que hayan de servir al Presidente para formar el Orden del Día de cada convocatoria.

c) Redactar los borradores de las actas de las reuniones y de la correspondencia que dirija el Presidente.

d) Custodiar los documentos, los expedientes y el Archivo.

e) Remitir los informes en materia de su competencia que sean interesados por los vocales y el Órgano Rector del Organismo.

f) Impulsar la tramitación de los asuntos que interesan al Organismo y el personal a su servicio.

RÉGIMEN DE SESIONES

ARTICULO 11.- El Consejo Rector se reunirá con carácter ordinario seis veces al año y con carácter extraordinario siempre que lo crea necesario el Presidente, o lo soliciten un tercio o más de los miembros de la Junta con voto.

Cualquier componente del Consejo Rector podrá presentar propuestas, con la antelación mínima de ocho días a la celebración del Consejo Rector, para ser incluidas en el Orden del Día y tratadas en el primer Consejo a celebrar, siempre que los temas propuestos estén relacionados con los fines para los que se ha creado el Organismo Autónomo.

La Convocatoria de las sesiones ordinarias y extraordinarias del Consejo se cursará por escrito, de orden del Presidente, con antelación



Deiarekin batera aztergaien zerrenda igorri behar da, batzarrean jorratuko diren gaiekin.

12. ARTIKULUA.- Kontseilu artezkaria ongi eratzeko, lehenengo deialdian, honako hauek egon behar dute: lehendakaria eta idazkaria (edo ordezkioak baleude) eta gutxienez kideen erdia. Bigarren deialdian, berriz, hamabost minutu beranduago, lehendakaria, idazkaria eta gutxienez hiru kide badaude. Quorum honi batzar osoan eutsi behar zaio.

13. ARTIKULUA.- Erabakiak gehiengo soilez onetsiko dira, hautespidea duten eta batzarrean dauden kide kopurua oinarritzat harturik. Gehiengo soilez onestea hau da, finean: aldeko boto gehiago ematea aurkako baino. Orain zerrendatuko diren erabakietan, ordea, gehiengo soila ez da nahikoa izango, ostera, Kontseiluko kideen gehiengo osoa behar da:

- a) Langileak kontratatzeko baimena ematea.
- b) Langileen ordainsariak onestea.
- c) Estatutuak aldarazteko edo indargabetzeko proposamena onestea.

Kontseilu Artezkariak edo lehendakariak euren eskumenen eremuan hartzen dituzten erabaki eta ebazpenek administrazio bidea agortuko dute. Haien aurka, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotzen diren errekursoak jar daitezke, administrazio bideari bukaera ematen dieten egintzen aurrean egitekoak.

Eman zaizkion eskurantzak betez zuzendariak ematen dituen ebazpenen aurka, bere eskumenak emateko erabakian jasotzen diren errekursoak egin daitezke

mínima de 48 horas, acompañada del Orden del Día, en el que se citarán los asuntos a tratar en cada sesión.

ARTICULO 12.- Para la válida constitución del Órgano Rector, en primera convocatoria, se requerirá la presencia del Presidente y del Secretario o en su caso, de quienes les sustituyan, y la de la mitad al menos de sus miembros, y en segunda convocatoria, quince minutos después si asisten el Presidente, el Secretario y tres vocales como mínimo. Este quórum deberá mantenerse durante toda la sesión.

ARTICULO 13.- Los acuerdos se aprobarán por mayoría simple de los miembros presentes con derecho a voto, entendiéndose por tal la que se produce cuando los votos a favor son más uno de los votos en contra, salvo en los supuestos de los acuerdos a continuación relacionados, que requerirán mayoría absoluta de los miembros del Consejo:

- a) Autorización de contratación de personal.
- b) Aprobación de las retribuciones de personal.
- c) Aprobación de la propuesta de modificación o derogación de los Estatutos.

Los acuerdos y resoluciones adoptados por el Consejo Rector o por el Presidente en el ámbito de sus competencias, agotarán la vía administrativa, pudiendo contra los mismos interponerse los recursos que, frente a los actos que ponen fin a la vía administrativa, se recogen en la Ley 30/92 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Las resoluciones que emita el Director en función de las competencias que le estén atribuidas, serán objeto de los recursos que se recojan en el acuerdo de atribución de competencias correspondiente.



14. ARTIKULUA.- Kontseilu artezkariarentzat akten artxibo bat eramango da. Bertan, honakoak jarri behar dira: batzarrak hasten diren toki, egun eta ordua; lehendakariaren eta etorri diren kideen izenak; eztabaidatu diren gaiak, ematen diren iritziak (ematen dituenak eskatzen baldin badu), eta hartzen diren erabakiak.

Aktak idazkariaren sinaduraz eta lehendakariak ontzat emanaz baimenduko dira. Hurrengo batzarrean onetsi arte ez dira irmoak izango.

ONDAREA

15. ARTIKULUA.- Honakoak erakundearen ondareari gehituko zaizkio: Getxoko Udalak beren beregi ematen dizkion ondasun higiezin eta higikorrak, urteroko aurrekontuak burutzean erosten dituenak, eta dohaintzetatik letozkeenak.

Getxoko Udalak erakunde autonomoaren izenean jarri dituen ondasunak ezin dira zamatuz ezta besterendu, udalak aldeztu aurretik baimena ematen ez badu.

16. ARTIKULUA.- Erakundearen ondarea den kapitala bere berezko helburuei bakarrik egongo da loturik.

17. ARTIKULUA: Getxoko "Andrés Isasi Udal Musika Eskolak" bere helburuei lotutako ondareko ondasunak erabiliko eta lupertuko ditu; horretarako muga bakarra estatutu hauek ditu.

ERAKUNDEAREN OGASUNA

18. ARTIKULUA.- Getxoko "Andrés Isasi Udal Musika Eskola" erakundearen ogasuna honakoek osatzen dute:

- a) Ematen zaion ondarearen produktu eta errentak.
- b) Erakunde publikoen dirulaguntzak.

ARTICULO 14.- Se llevará un Archivo de Actas para el Consejo Rector en el que se consignarán el lugar, día y hora en que comiencen las reuniones; los nombres y apellidos del Presidente y Vocales asistentes, los asuntos sometidos a deliberación, las opiniones emitidas cuando lo pida el miembro que lo exponga y los acuerdos adoptados.

Las Actas serán autorizadas con la firma del Secretario y el visto bueno del Presidente y no serán firmes hasta su aprobación en la siguiente reunión.

PATRIMONIO

ARTICULO 15.- Se incorporarán al Patrimonio del Organismo todos aquellos bienes muebles e inmuebles que le sean expresamente asignados por el Ayuntamiento de Getxo, aquellos que adquiera como consecuencia de la ejecución de sus presupuestos anuales y los que provinieran de posibles donaciones.

No podrán ser objeto de gravamen ni enajenación los bienes que el Ayuntamiento de Getxo haya adscrito al Organismo Autónomo, sin previa autorización expresa del Ayuntamiento.

ARTICULO 16.- El capital que constituye el patrimonio del Organismo queda afectado exclusivamente a los fines propios del mismo.

ARTICULO 17.- La "Escuela de Música Municipal Andrés Isasi" de Getxo usará y disfrutará de los bienes que forman el patrimonio vinculado a sus fines, sin más limitaciones que las previstas en los presentes Estatutos.

HACIENDA DEL ORGANISMO

ARTICULO 18.- La Hacienda del Organismo "Escuela de Música Municipal Andrés Isasi" de Getxo estará constituida:

- a) Por los productos y rentas del patrimonio que se le asigne.
- b) Por las subvenciones procedentes de Organismos públicos.



c) Getxoko Udalak helburu horietarako ematen dituen ekarpenak, urteko aurrekontuen pentzutan.

d) Pertsona fisiko edo juridikoek ematen dizkien dohaintza eta legatuak.

e) Zerbitzuak ematek jasotako kuota, tasa edo kanonen zenbatekoak.

f) Eman dakioken beste edozein baliabide.

19. ARTIKULUA.- Erakundearen ogasunak sortzen zaizkion betebeharrak eta zorrak bete behar ditu. Erantzukizun horrek ez du ukituko zerbitzu publikorako udalaren ondasun higiezinaren ondarea, alienaezina, bahiezina eta preskribaezina delako.

20. ARTIKULUA.- Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan Kontseilu artezkariari aurkeztuko zaio erakundearen ondarearen zuzenketa, aurreko abenduaren 31ri buruzkoa, onesteko.

21. ARTIKULUA.- Erakundea desegiten bada, udala izango da beraren ondorena, era orokorrean.

22. ARTIKULUA.- Erakundearen kontabilitatea udaleko fondoan kontu-hartzailearen esku egongo da, eta korporazioarenetik bereiz egin behar da.

Kontabilitateko teknika tokiko erakundearekin bat etorriko da, eta kudeaketa ekonomikoa argiago, eraginkorrago eta kontrolatzeko errazago izaten lagundu dezaketenak ere aintzat hartuko dira.

23. ARTIKULUA.- Udaleko Kontu-hartzailetzak erakunde autonomoaren kontabilitatea antolatu eta zuzendu behar du.

24. ARTIKULUA.- Erakundearen aurrekontuak eta urteko kontuak likidatzeko era bat etorri behar da tokiko erakundeentzat finkatutako arauekin. Udalbatzak onetsi behar ditu behin

c) Por las aportaciones que destine a sus fines el Ayuntamiento de Getxo, con cargo a sus presupuestos anuales.

d) Por los donativos y legados a su favor procedentes de personas físicas o jurídicas.

e) Por los importes de cuotas, tasas o cánones obtenidos por la prestación de servicios.

f) Por cualquier otro recurso que pudiera serle atribuido.

ARTICULO 19.- La hacienda del Organismo responderá de las obligaciones y deudas contraídas, sin que tal responsabilidad alcance el patrimonio de bienes inmuebles de propiedad municipal destinado al Servicio Público, que es inalienable, inembargable e imprescriptible.

ARTICULO 20.- En el primer trimestre de cada año se someterá a la aprobación del Consejo Rector, la rectificación del Patrimonio del Organismo con referencia al 31 de diciembre inmediato anterior.

ARTICULO 21.- En caso de disolución del Organismo, el Ayuntamiento le sucederá universalmente.

ARTICULO 22.- La contabilidad del Organismo estará a cargo del Interventor de Fondos del Ayuntamiento y se llevará a cabo con independencia de la general de la Corporación.

La técnica contable se acomodará a la de las Entidades Locales, sin perjuicio de aquellas modalidades que se consideren convenientes para la mayor claridad, eficacia y control de la gestión económica.

ARTICULO 23.- A la Intervención Municipal corresponderá organizar y dirigir la contabilidad del Organismo Autónomo.

ARTICULO 24.- Las liquidaciones de los Presupuestos y de las Cuentas Anuales del Organismo, se ajustarán a las normas establecidas para las Corporaciones Locales,



betiko.

25. ARTIKULUA.- Udaleko fondoan kontu-hartzailea erakundearen aholkulari izango da ekonomia eta finantza gaietan. Funtzio hauek dagozkio.

- a) Urteko aurrekontuaren gaineko txostena ematea, onetsi aurretik.
- b) Erakundearen ondarearen administrazioa eta aurrekontuaren kontuak prestatu eta idatzi behar ditu.
- c) Derrigorrezko kontabilitate liburuak, eta sarrera eta gastuen kontua eta arrazoia eramatea.
- d) Kobrantza eta ordainketetan kontu-hartzea, eta kontabilitatea.
- e) Ordaintzeko manuak sinatzea.
- f) Erakundeko langileen nominak aztertu eta berrikusi behar ditu; baita fakturak, ziurtagiriak eta ordaindu beharra dakarten agiri guztiak, oro har, ere.
- g) Sei hilean behin kutzaren egoera eta fondoan mugimendua azaldu behar dizkio Kontseilu artzakarari.
- h) Urte bakoitzeko lehen seihilekoan aurreko ekitaldiko kontu orokorrak eta ondarearen administrazioa prestatu behar ditu.
- i) Kontu-hartzailearen berezko expediente eta agiriak jagon behar ditu.
- j) Karguaren berezko txosten eta irizpenak ematea, eta, oro har, eman zaizkion funtzio guztiak bete.

Kontu-hartzaileak aurreko funtzio horiek Kontseilu Artzakariko idazkariari eskuordetu ahal dizkio, artikulua honen d) idatz-zatian jasotakoa izan ezik.

UDALAREN TUTORETZA AHALMENAK

correspondiendo su aprobación definitiva a la Corporación Municipal en Pleno.

ARTICULO 25.- El Interventor de Fondos del Ayuntamiento será el asesor del Organismo en materia económica y financiera y le corresponden las siguientes funciones:

- a) Informar previamente a su aprobación, el Presupuesto Anual.
- b) Preparar y redactar las Cuentas de Presupuesto y la Administración del Patrimonio del Organismo.
- c) Llevar los libros de Contabilidad obligatorios y la cuenta y razón de los ingresos y gastos.
- d) Intervenir los cobros y los pagos, así como la contabilidad.
- e) Firmar los mandamientos de pago.
- f) Examinar y revisar las nóminas del personal del Organismo, facturas, certificaciones y en general, todos los documentos que motiven las obligaciones de pago.
- g) Presentar semestralmente el estado de la caja y el movimiento de fondos al Consejo Rector.
- h) Preparar en el primer trimestre de cada año las Cuentas Generales del ejercicio anterior y la Administración del Patrimonio.
- i) Custodiar los expedientes y documentos propios de la Intervención.
- j) Emitir los informes y dictámenes propios del cargo y en general desarrollar cuantas funciones le estén atribuidas.

El Interventor podrá delegar las funciones anteriores en el Secretario del Consejo Rector, exceptuando lo recogido en el apartado d) de este artículo.

FACULTADES DE TUTELA DEL AYUNTAMIENTO



26. ARTIKULUA- Estatutu hauek aldaraztea eta erakundea iraungitzea erakundea sortu duen udal korporazioaren eskumen dira, indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera.

Estatutu hauek aldarazteko eta erakundea iraungitzeko, tokiko araubidearen oinarriei buruzko legean ezarritako prozedura bete behar da.

27. ARTIKULUA- Getxoko Udal Ohoretsuak izango du erakunde autonomoaren jardueren goiko ikuskapena.

28. ARTIKULUA- Kontseilu artezkariak urtero aurkeztuko dizkio udalari kudeaketa ekonomikoari buruzko erabakiak, likidazioak eta kontuen itxierak. Emandako zerbitzuak azaltzen dituen urteko memoriaren ale bat ere aurkeztu behar du.

29. ARTIKULUA- Kontseilu artezkariak Getxoko Udalari honakoa aurkeztuko dizkio kontu orokorrean sartzeko:

- a) Aurreko ekitaldiko aurrekontuko kontuak.
- b) Erakundearen ondarearen urteko kontua.

Kontu biak Getxoko Udalean aurkeztuko dira urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan.

30. ARTIKULUA- Estatutu hauek aplikatzean edo interpretatzean egon litezkeen zalantzak Getxoko Udalak argitu eta ebatziko ditu.

31. ARTIKULUA- Estatutu hauetan ezarri ez direnetan, indarreko legerian eta udalaren araudian ezarritakoa izango da zuzenbide ordeztaille.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA-
Erakunde autonomo honen zuzendaritza-

ARTICULO 26.- La modificación de estos Estatutos, así como la extinción del Organismo, están atribuidas a la competencia de la Corporación Municipal que la crea, según lo dispuesto en la legislación vigente.

Tanto para la modificación de estos Estatutos, como para la extinción del Organismo, se seguirá el procedimiento establecido en la Ley de Bases de Régimen Local.

ARTICULO 27.- El Ilustre Ayuntamiento de Getxo tendrá la inspección superior de las actividades que desarrolla el Organismo Autónomo.

ARTICULO 28.- El Consejo Rector elevará anualmente al Ayuntamiento los acuerdos correspondientes a la gestión económica, las liquidaciones y cierres de cuentas, acompañando un ejemplar de la Memoria anual expresiva de los servicios prestados.

ARTICULO 29.- El Consejo Rector elevará al Ayuntamiento de Getxo para su inclusión en la Cuenta general:

- a) Las Cuentas del Presupuesto del Ejercicio anterior.
- b) La Cuenta Anual del Patrimonio del Organismo.

Ambas cuentas se presentarán en el Ayuntamiento de Getxo, dentro del primer trimestre de cada año.

ARTICULO 30.- Las dudas que suscite la aplicación o interpretación de los presentes Estatutos serán aclaradas y resueltas por el Ayuntamiento de Getxo.

ARTICULO 31.- En lo no previsto en estos Estatutos, regirá como derecho supletorio lo establecido en la legislación vigente y reglamentación municipal.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA.-
Los requisitos que el artº. 85 bis 1.b) de la Ley



organoko titular gorenak bete behar dituen baldintzak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 85 bis 1.b) artikuluan azalduak, aldarazpen hau indarrean sartzen den unetik aurrera egiten diren izendapenetan aplikatuko da.

Reguladora de las Bases del Régimen Local recoge para el titular del máximo órgano de dirección del Organismo Autónomo, serán de aplicación para los nombramientos que se realicen a partir de la entrada en vigor de la presente modificación.

DILIGENCIA: Se extiende para hacer constar que el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 25-06-04 aprobó inicialmente la modificación de los Estatutos del Organismo Autónomo Local “Escuela de Música Andrés Isasi” de Getxo, que afectan a los artículos 4, 6, 8, 9, 13, 15 e incorporación de una Disposición Transitoria Única, dentro del expediente de adecuación de los mismos a la Ley 57/2003, de 16 de diciembre, de Medidas para la modernización del Gobierno Local.

En el BOB nº 129, de 7-7-04 se publica anuncio relativo a esta aprobación.

No habiéndose presentado ninguna reclamación o sugerencia se entiende, de conformidad con el artículo 49 c de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, definitivamente adoptado el acuerdo referido.

Según se establece en el citado acuerdo se procede a la publicación en el BOB nº 197, de 11-10-04 del presente Texto Refundido en el que se recogen dichas modificaciones, para seguridad jurídica en general y mayor comprensión del mismo.

Getxo, 29 de octubre de 2004.

IDAZKARI NAGUSIA/EL SECRETARIO GENERAL,

Stua./Fdo. D. Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jnak.